

Donostiako Diputazio Jauregian, 1983.eko martxoaren 25ean arratsaldeko hiru t'erdietan egin du Euskaltzaindiak hileroko bilera. Bildu dira: L. Villasante burua, P. Altuna, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fdez. Setien, X. Gereño, X. Kintana, J. L. Lizundia, A. Zatarain eta J. J. Zearreta urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, P. Larzabal eta L. Mitxelena euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azken aldietako bi agiriak onartu dira, urtarrilekoan idazkariak irakurritako Memoriaren aipamena kenduz.

Goizeko bilkuraren berri

Euskararen Normalizapenerako legeari buruz Madrilgo Gobernuak hartu duen bidea ikusirik, Euskaltzaindiak bere kezka larria agertu dio gutun baten bidez Felipe Gonzalez buruzagiari. Hiltzeko zorian dagoen euskararen aldeko lagungarriek ezin diotela inola ere egoera onean dagoen gaztelaniari atzeramendurik sortu, esaten zaio; eta erdal Akademiako jaun ospetsuek aipatutako, España osoan mintzo diren hizkuntza guzien aldeko plangintza zehatza beharrezkoa ikusten duela.

Urgazle berriak. Araudiaren ildotik eta horretarako ezarritako epea beterik, urgazle berrien izendapenak egin ditu Euskaltzaindiak. Agiri buruan aipatu diren euskaltzainekin batera beste zazpi lagunak idazkiak jaso dira bozketarako ahala ematen: E. Knörr eta L. Mitxelena, Villasanteri; X. Diharce, J. Hiriart-Urruty jaunek, Lafitteri; J. L. Davant, J. Haritschelhar eta P. Larzabalek, Larrereri. Hamabost botz-emaile, beraz eta gehiengoa osotu da. Honako hemeretzi izen hauek onartu dira: Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria, Miren Azkarate Villar, Rikardo Badiola Uriarte, Manex Erdozaincy-Etchart, Ana M.^a Etxaide Itharte, Joxe M.^a Etxebarria Lejarraga, Juan Luis Goikoetxea Arrieta, Bernard Goity, Jon Kortazar Uriarte, M.^a Pilar Lasarte Zubitur, Anjel Lertxundi Esnal, Beñat Oihartzabal, Karlos Otegi Lakuntza, Jose M.^a Sanchez Carrion, Arantza Urretavizcaya Bejarano, Jose M.^a Velez de Mendizabal Azkarraga, Xarlex Videgain, Nicolas Barrenetxea Uribasterra "Aita Julen Yurrekoa" eta Mikel Zalbide Elustondo.

Pertsona Izendegia. Euskaltzainei zabalduetako zerrendari egin zaizkion oharren berri eman da eta azken bilduma prestatzeko eskatu zaio arduradunari. Hiru edo lau Euskaltzaindikoren artean azken begiratua emango zaio.

Batzordeen azalpena

Hiztegigintzarako batzardea bildu dela Gasteizen, adierazi du R. Badiolak. Aste Santua igaro arte lanean hasterik ez dago. Liburuez jabetzen hasiko dira gero eta fitxategia egiten. Mitxelenak bere fitxen kopia ateratzeko baimena emana du.

San Prudentzio inguruan Euskaltzaindiko barne-arazoei buruz egingo diren jardunen berri eman du J. L. Lizundiak: Apirilaren 27an, asteazkenean, batzarra eta Gamiz-en liburuaren aurkezpena Gasteizen. Gero, 28 eta 29an, ostegun eta ostiralez, barne-arazoan jardunak Angoston.

Txostena

Pello Salaburu-k, Baztango azpieuskalkiaren fonetikaz eman du bere txostena. Kontsonante batzuren inguruan gertatu ohi diren ahozkatzeko erak, hala nola S-X-Z-renak, adierazi ditu.

Azkenik, *Ertzaina* eta *Ertzaingoa* hitzei dagokienez, Bidasoako Beran 1980.eko Uztailaren 31an hartutako erabakia gogoratzea, komenigarri ikusten da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI